

Moraig kobazuloa.

Benitaxell herritik gertu, Marina Alta eskualdean, goitik behera erortzen dira labarrak itsasora. Harkaitzek faila eta arraildura ugari dituzte, eta hauen artean, *Moraig* erreka doa itsasoraino.

Uraren eta haizearen indarrak zabalduetako barrunbe eta gelek *Moraig* kobazuloa osatzen dute. Feniziarrek iadanik ezagutzen eta bere barrutik ur geza jasotzen zutela diote.

Kobazulora lehorretik sar daiteke, labarrak ziprztintzen dituzten palmondo artean, baina ez da sarbide bakarra.

Kobazuloa eta itsasoa elkarren ondoan daude. Ura itsasorantz doa beti, eta organismoek ez dute mugarik bereizten. Argia, gazitasuna eta tenperatura egokiak diren tokietan, ugaltu eta hazi egingo dira. Barrunbeetan sortzen diren ur lasterrek elikagaiak eta oxigenoa ekartzen dituzte, ordezka ezinak dira, baina bultzatu eta astindu egiten dituzte Posidoniaren hostorriak, *Asparagopsis* algak eta zeriantoaren garroak, hile adatsak bailiran. Tinkotasuna eta sendotasuna estrategia bat dira, baina malgutasuna beste bat izan daiteke, urak indarrez eta etengabe jarduten duenean batez ere.

Polipoak, izarrak... krustazeo boteretsuak, alga hauskorak... ez dago korronteei ihes egin diezaiekeen ur azpiko izakirik.

Itsasorantz zabaltzen den *Moraig* kobazuloko partean, ez behintzat.

Kobazuloak hainbat gela ditu, altuera eta sakontasun ezberdinetakoak; Espeleologoek eta urpekariek ondo ezagutzen dituzte guztiak. 125 metroko ibilbidean zehar, zailtasunak ez dira oso handiak, baina bidea ez da guztiz fidatzeko bezain argia. Erraza da kobazulo barruan norabidea galtzea eta ez aurrera ez atzera gelditzea. *Moraig* kobazuloa ez da salbuespena. Lehorretik sartzean zeharkatu behar den sifotik begiratuta, ez da erraza marrazten dituen hutsuneak, sartzen uzten dituen argiak eta itsasorako irteera sumatzea; ibilbide horiek kontrabandistek ondo ezagutzen zituzten arren.

Aintzira urdineko gela, horietako bat da. Eguzki izpiek, goitik behera sartzean, argi eta itzal jokoak, eta beste mundu batetik etorriak diruditen kolore urdin distiratsuak eragiten dituzte. Aintzira honek murgilarien gelara eramaten du iparralderantz, eta labirintoen eremura, hegoalderantz. Aintziratik, *Foia de les Coves* deitutako tokira irits daiteke, 10 bat metroko hodi batean zehar. Itsaso zabalera ere badu irteera.

Moraig kobazuloa arriskutsua da, nahiz eta ondo ezagutu. Itsasoarekin ez dela lehiatu behar ahaztu zuenak ez zuen gehiago aire garbirantz eramango zuten burbuila horiek jarraitzen asmatu. Bizitzaren ibilbideari jarraitzea ez da erraza beti.

Irteera markatzen duten sokak daude galdu direnentzat, itzuli nahi dutenentzat. *Moraig* kobazuloan geratu ziren horiek jada ezin izango dute itzuli.